12\10\08\00\00005 espediente zk.

N.º expediente: 12\10\08\00\00005

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Batzordeak, 2021eko abenduaren 15ean egindako bileran, aztergai izan ditu 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana eta aurkeztutako proposamenak, eta, eztabaida egin ondoren, ebazpenak onetsi ditu, behean dagoen testuaren arabera.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da batzordeburuaren oniritziarekin, Gasteizen, 2021eko abenduaren 15ean.

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

La Comisión de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, en la sesión celebrada el día 15 de diciembre de 2021, tras el debate sobre el Plan Director de Vivienda 2021-2023 y de las propuestas formuladas, ha aprobado las resoluciones con arreglo al texto adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2021.

**Ontzat emana**
**BATZORDEBURUA**
**Visto bueno**
**LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN**

**María Jesús San José López**

**BATZORDEKO IDAZKARIA**
**LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN**

**Maitane Ipiñazar Miranda**

## 2021-2023 ALDIRAKO ETXEBIZITZAREN GIDA PLANARI BURUZ ONETSITAKO EBAZPENAK

"1. Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du Nazio Batuen Agenda 2030ekiko duen konpromisoa, eta bereziki 11.1 helburuarekikoa, non aipatzen den etxebizitza eskuratzea eskubide subjektibo gisa bermatu behar zaiela Euskadin bizi diren biztanleei.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio buka dezala 2022an Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean jasota dagoen etxebizitzarako eskubide subjektiboaren erregelamenduzko garapena, eta berma dezala Euskadin bizi diren biztanle guztiek eskubide hori baliatu ahal izango dutela.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio etxebizitzarako prestazio ekonomikoa aitortu dezala soilik etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzeko elementu subsidiario gisa, horretarako alokairuko etxebizitza edo ostatu babestua esleituz.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eguneratu ditzala etxebizitza, prestazioak edo laguntzak jasotzeko ezarrita dauden errenta-atalaseak, egungo errealitatera egokituz eta lan-merkatu prekario eta aldakorrera moldatutako malgutasun-irizpideak ezarriz.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma dezala etxebizitza duin eta egokia izateko eskubide subjektiboa arautzeko dekretuaren garapenak ez duela inolako murrizketarik eragingo orain arte aitortutako eskubideetan, ezta baldintza eta kopuruetan ere, eta orain etxebizitzako prestazio osagarria aitortua dutenei zuzenean aitortuko zaiela etxebizitzako prestazio ekonomikoa. Lanbideren eta Etxebizitza Sailaren arteko informazio-trukaketak funtsezko garrantzia izango du trantsizio horretan.

6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei eskatzen die ezen, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren baitan,

## RESOLUCIONES APROBADAS EN RELACIÓN CON EL PLAN DIRECTOR DE VIVIENDA 2021-2023

"1. El Parlamento Vasco reafirma su compromiso con la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, y en especial con el objetivo 11.1, que hace referencia a garantizar el acceso a la vivienda como un derecho subjetivo para la población residente en Euskadi.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a culminar en 2022 el desarrollo reglamentario del derecho subjetivo a la vivienda recogido en la Ley 3/2015, de Vivienda, y a garantizar el acceso de toda la población residente en Euskadi al ejercicio de dicho derecho.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reconocer la prestación económica de vivienda únicamente como elemento subsidiario a la satisfacción del derecho subjetivo a la vivienda, mediante la adjudicación, en alquiler, de vivienda o alojamiento protegido.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a actualizar los umbrales de renta establecidos para el acceso a una vivienda, a una prestación o a ayudas, ajustándolos a la realidad actual y estableciendo criterios de flexibilidad que se adapten a un mercado de trabajo precario y volátil.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a garantizar que el desarrollo del decreto para la regulación del derecho subjetivo a una vivienda digna no supondrá ningún recorte en los derechos hasta ahora reconocidos, ni en las condiciones ni en las cuantías, y que a quienes tienen reconocida en la actualidad la prestación complementaria de vivienda se les reconocerá automáticamente la prestación económica de vivienda. El intercambio de información entre Lanbide y el Departamento de Vivienda será de vital importancia en esta transición.

6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a las diputaciones forales a realizar en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria

egin ditzatela PFEZn adierazitako etxeen diru-sarrera mailei eta alokairuei buruzko informazio garrantzitsuaren gurutzaketa estatistikoa ahalbidetzeko behar diren lan tekniko eta normatibo guztiak, etxeen ahalegin finantzarioa oinarrizko aldagai gisa zehaztu ahal izateko bizitegi-merkatua noiz dagoen tentsionatuta zehazterakoan, helburu izanik etxebizitza-arloko jarduera publikoak orientatzea biztanleentzat etxebizitza-eskaintza eskasa izateko arrisku berezia dagoen lurralde-eremuetan, merkatuan sartzeko eskuragarri egiten duten baldintzetan. Horrela, prezioak izoztu edo jaitsi egingo dira, legediak ezarritako baldintzetan. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio egin ditzala lan horiek hurrengo bederatzi hilabeteetan.

7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, hurrengo bederatzi hilabeteetan, aurreratu eta bukatu ditzala prezioen aldaketak, dagoen etxebizitza-eskaera eta etxebizitza horietako oinarrizko horniduren prezioak jasotzeko behar diren eragiketa estatistikoak, etxebizitza-politiken arloko informazio estatistiko garrantzitsua osatzeko eta etxebizitza-politika egokitzeko, datu guztiak kontuan izanik.

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala Gaztelagun programa hobetzeari buruzko 52/2021 Legez besteko Proposamenean xedatutakoa, ez soilik alokairuen mugak eguneratzeari dagokionez –eta hori positibotzat jotzen da–, baizik eta baita Gaztelagun laguntzaren zenbatekoa gehitzeari eta euskal gazteriaren profil guztietara egokitzeari dagokienez ere.

9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala Gaztelagun programa hobetzeari buruzko 52/2021 Legez besteko Proposamenean xedatutakoa, eta hurrengo sei hilabeteetan egingo den prozesu batean parteka dezala gizarte- eta gazte-eragileekin 2020an egindako programaren ebaluazioa, Gaztelagun programa aberasteko eta, partaidetza-jarduera horien ondoren, behar diren aldaketak proposatzeko, beharrizana duten gazteengana modu eraginkorragoan irits dadin.

de Euskadi todos los trabajos técnicos y normativos para posibilitar el cruce estadístico de información relevante en materia de niveles de ingresos de los hogares y alquileres declarados en IRPF, para poder determinar el esfuerzo financiero de los hogares como una de las variables básicas en la definición de mercado residencial tensionado, a los efectos de orientar las actuaciones públicas en materia de vivienda en aquellos ámbitos territoriales en los que exista un especial riesgo de oferta insuficiente de vivienda para la población, en condiciones que la hagan asequible para su acceso en el mercado, y de activar de esa forma la congelación o bajada de precios en los términos que la legislación establezca. El Parlamento insta al Gobierno a realizar estos trabajos en los próximos nueve meses.

7. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a avanzar y a culminar en los próximos nueve meses las operaciones estadísticas precisas para recoger las variaciones de precios, la demanda de vivienda existente y los precios de los suministros básicos de dichas viviendas, para complementar la información estadística relevante en materia de políticas de vivienda y adecuar la política de vivienda contando con todos los datos.

8. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir con lo dispuesto en la Proposición no de Ley 52/2021 de mejora del programa Gaztelagun, no solo en la actualización de los topes de los alquileres, que se valora de forma positiva, sino también en el aumento de la cuantía de la ayuda Gaztelagun y en la adecuación a los diferentes perfiles que presenta la juventud vasca.

9. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir con lo dispuesto en la Proposición no de Ley 52/2021 de mejora del programa Gaztelagun, en lo que se refiere a compartir con agentes sociales y juveniles, en un proceso a realizar en los próximos seis meses, la evaluación del programa realizada en 2020, con el fin de enriquecerlo y proponer, tras esas actividades participativas, las mejoras suficientes para que Gaztelagun llegue de una forma más efectiva a las personas jóvenes que lo necesiten.

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala Gaztelagun programa hobetzeari buruzko 52/2021 Legez besteko Proposamenean xedatutakoa, eta doitu dezala Gaztelagun programaren aurrekontua ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideen kopurura.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aitortu dezala arazo handia dela 15.000tik gora etxebizitza huts kudeagarri egotea, eta beharrezkoa dela haiek mobilizatzea herrialdean dagoen alokairu-eskabideari erantzun ahal izateko, helburu izanik etxebizitza horiek ardatz estrategiko gisa berreskuratzea.

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erabil dezala etxebizitzarako baliabideen % 100a alokairuko politiketarako, birgaikuntzarako direnak salbuetsita, eta jar dezala fokua alokairuko etxebizitza babestuen parkea gehitzen.

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala gehiago alokairura bideratutako etxebizitza-parke inportante bat. Horretarako, Jaurlaritzaren eta haren sozietate publikoen (Visesa) etxebizitza-sustapena babestuko du, edo Jaurlaritzaren ekimenez egindakoa, udalekin elkarlanean –baita tokiko entitate txikiekin ere, haiek hala eskaturik–, eta ekimen pribatuarekin, baldin eta bermatzen bada etxebizitzen parke publikoaren parte izango direla beti.

14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Etxebizitzaren Legearen printzipio zuzendariak garatzean, eta alokairu babestua sustatu eta garatzearekin batera, hori baita etxebizitza bat lortzeko formularik behinena eta lehenena, esploratu, aztertu eta bultzatu ditzala etxebizitza eskuratzeko beste formula batzuk, alternatiboak edo berritzaileak, hala nola erabilera-lagapeneko kooperatibak, *cohousing*a, belaunaldiarteko proiektuak, proiektu komunitarioak, eta abar.

15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu ditzala etxebizitzara lehentasunez sartzeko politikak bizitoki-larrialdiko egoeretan, eta saihestu dezala

10. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir con lo dispuesto en la Proposición no de Ley 52/2021 de mejora del programa Gaztelagun, en lo que se refiere a ajustar el presupuesto del programa Gaztelagun al número de solicitudes que cumplan los requisitos establecidos.

11. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reconocer el importante problema que supone la existencia de más de 15.000 viviendas vacías gestionables de forma directa y su necesaria movilización para satisfacer la demanda de alquiler existente en el país, a fin de recuperarlas como eje estratégico.

12. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a destinar a políticas de alquiler el 100 % de los recursos en materia de vivienda, exceptuando los destinados a rehabilitación, y a poner el foco en el incremento del parque de vivienda protegida en alquiler.

13. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a incrementar el impulso de un importante parque de viviendas con destino al alquiler, fomentando la promoción de viviendas por el propio Gobierno y sus sociedades públicas (Visesa) o a iniciativa del Gobierno, y en colaboración con los ayuntamientos –e incluso con las entidades locales menores, a solicitud de estas– y con la iniciativa privada, siempre que se garantice su pertenencia al parque público de vivienda de forma permanente.

14. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en desarrollo de los principios rectores de la Ley de Vivienda, y en combinación con la promoción y el desarrollo del alquiler protegido como fórmula principal o primaria de acceso a la vivienda, explore, estudie, promueva e impulse otras fórmulas alternativas e innovadoras de acceso a la vivienda, como cooperativas en cesión de uso, *cohousing*, proyectos intergeneracionales, comunitarios, etcétera.

15. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a reforzar las políticas de acceso preferente a la vivienda en situaciones de emergencia habitacional, y a evitar el riesgo de exclusión

gizarte-bazterketaren arriskua bizitoki-aukerak emanda.

16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantendu eta hobetu ditzala lan- eta komunikazio-ildoak benetako konponbideen bila beren eremuetan bizitegi-larrialdiaren problematikaren aurka borrokan diharduten kolektibo eta elkarteekin, eta lankidetza horren baldintzak izan daitezela Alokabidek kudeatzen duen alokairuko etxebizitza-parke publikoaren etxegabetzeen aurkako protokoloan dauden baldintzen antzekoak.

17. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin ditzala behar diren urratsak Alokabide etxebizitza sozialen jasangarritasun energetikoaren eta irisgarritasunaren erreferente bihur dadin, eta sentsibiliza ditzala maizterrak eta eskain diezazkiela irtenbideak energiaren eta baliabideen kudeaketa efikaza egiteko, energia-kostuak optimizatuz eta energia berriztagarrien instalazioak babestuz eta bultzatuz, kudeatzen duen parkean pobrezia energetikoko benetako egoerak eta irisgarritasun-arazoak identifikatuz, eta parke publikoa mantentzeko eta hobetzeko behar diren inbertsio-planak eginez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin lankidetzan.

18. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio elektrifika ditzala etxebizitza publiko zein pribatuen sustapen berriak, negutegi-efektuko gasak isurtzen dituzten erregaien mende egon ez daitezen. Horretarako, etxebizitzak ia kontsumorik gabekoak izan beharko dira, eta *passivhaus* edo antzeko estandar energetikoekin planifikatu eta exekutatu beharko dira; horrez gain, autokontsumo-erregimeneko energia berriztagarrien instalazioekin osatu beharko dira.

19. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma diezaiela etxebizitzarako eskubide subjektiboa Euskadin bizi diren biztanleei, etxebizitzak alokatzeko programa publikoak ezarriz eta hobetuz, eta enfasi berezia jarriz gazteengan, indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeengan, guraso bakarreko familiengan, desgaitasun edo

social con opciones habitacionales alternativas.

16. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener y a mejorar las líneas de trabajo y comunicación con colectivos y asociaciones que luchan en sus respectivos ámbitos contra la problemática de la emergencia habitacional en la búsqueda de soluciones efectivas, en términos de colaboración similares a los que se mantienen en el protocolo antidesahucios del parque público de vivienda en alquiler que gestiona Alokabide.

17. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a dar los pasos necesarios para convertir Alokabide en un referente en sostenibilidad energética y accesibilidad de la vivienda social, y a sensibilizar y a proporcionar soluciones a las personas inquilinas que faciliten una gestión eficaz de la energía y de los recursos, optimizando costes energéticos y apoyando e impulsando las instalaciones de energías renovables, identificando situaciones reales de pobreza energética y problemas de accesibilidad en su parque gestionado, y adoptando los planes de inversiones precisos, en colaboración con el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, para el adecuado mantenimiento y mejora del parque público.

18. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a la electrificación de las nuevas promociones de vivienda, tanto pública como privada, para que no dependan de combustibles que emitan gases de efecto invernadero. Para ello, las viviendas deberán ser de consumo casi nulo y planificarse y ejecutarse con estándares energéticos *passivhaus* o similares, además de complementarse con instalaciones de energías renovables en régimen de autoconsumo.

19. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a garantizar el derecho subjetivo a la vivienda de la población residente en Euskadi, estableciendo y mejorando los programas públicos de alquiler de vivienda, con especial énfasis en las personas jóvenes, las mujeres supervivientes de violencias machistas, las familias monomarentales, personas con discapacidad o dependencia,

mendekotasunen bat duten pertsonengan, bai eta zaurgarritasun-egoeran egonik beren ardurapean seme-alabak dituzten familiengan ere.

así como las familias en situación de vulnerabilidad con hijas e hijos a cargo.

20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jar ditzala eskueran adingabekoak dauden familien etxegabetze edo hipoteka-exekuzio oro eragozteko behar diren baliabide eta bitartekoak, 52/2018 Legez besteko Proposamena, Administrazio publikoaren gizarte-politika eta jarduera guztietan haurraren interes nagusiaren irizpidea txertatzeari buruzkoa, betetze aldera.

20. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a poner a disposición los medios y los recursos necesarios para evitar cualquier desahucio o ejecución hipotecaria de familias en las que existan personas menores de edad, en orden a cumplir con la Proposición no de Ley 52/2018, relativa a la incorporación del principio del interés superior del niño y niña en todas las políticas sociales y actuaciones de la Administración pública.

21. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala neurriak irisgarritasun unibertsala bermatzeko etxebizitza birgaitzerakoan, eta eman diezaiela lehentasuna zona eta pertsona ahulei eragiten dieten jarduketei. Horretarako, diagnostiko bat egingo da ingurukoen egoera sozioekonomikoari buruz eta egoera fisikoari buruz, hots, eraikin eta etxebizitzen egoerari eta irisgarritasunari dagokienez, lehenespenik hoberena lortze aldera.

21. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a establecer medidas para garantizar la accesibilidad universal en la rehabilitación de la vivienda, y a priorizar las actuaciones que afecten a personas y zonas vulnerables. Para ello, se realizará un diagnóstico de la situación socioeconómica en cuanto a las vecinas y de la situación física en lo que a la accesibilidad y estado de los edificios y viviendas se refiere, de cara a lograr una priorización óptima.

22. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, biztanleen zahartzearen errealitatea aintzat hartuta, jar dezala arreta berezia adinekoen etxebizitza-arazoan. Horretarako, neurriak hartuko ditu eraikinen eta etxebizitzen irisgarritasuna hobetzeko; besteak beste, etxebizitzetako obrak edo eraberritzeak finantzatzea edo diruz laguntzea, nor bere etxean ahalik eta denbora gehien egotea ahalbidetzeko edo laguntzeko, bizi-kalitatearen baldintza onenetan.

22. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, atendiendo a la realidad del envejecimiento poblacional, preste una especial atención a la problemática de vivienda para las personas mayores, y a adoptar medidas para mejorar la accesibilidad de los edificios y de las viviendas; entre otras, la financiación o subvención de aquellas obras o reformas de las viviendas que faciliten o favorezcan la residencia el máximo tiempo posible en el domicilio propio, contando con unas condiciones óptimas de calidad de vida.

23. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenets dezala birgaikuntza etxebizitza-politikaren funtsezko elementu gisa, beste bultzada bat emanez lehendik hedatutako jarduerari eta enfasia jarriz efizientzia energetikoaren eta irisgarritasunaren helburuetan, baita birgaikuntza integratuan eta hiri-berroneratzean ere. Pertsonei eta familiei errentan oinarritutako irizpideen arabera emango zaizkie irisgarritasuna hobetzeko eta

23. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a priorizar la rehabilitación como elemento clave de la política de vivienda, dando un nuevo impulso a la actividad ya desplegada y poniendo el énfasis en objetivos de eficiencia energética y accesibilidad, así como en la rehabilitación integrada y la regeneración urbana. Las ayudas y subvenciones públicas a personas y familias destinadas a la accesibilidad y a la

etxebizitza birgaitzeko laguntza eta subentzio publikoak.

24. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zabaldu eta hobetu ditzala eztabaidak Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala osatzeko, herritarren kolektiboen eta etxebizitza-sektorearen benetako parte-hartzea sustatuz, baita talde parlamentarioak informatuz eta haiekin akordioak erdiesten saiatuz ere.

25. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, etxebizitza-eskubide subjektiboa azaltzean (Etxebizitzaren Gida Planeko "Diagnostiko arautzaile-programatikoa"ren 6. orrialdean), esaten denean "Etxebizitzarik edo bizitokirik ezean, eta izaera subsidiarioarekin, eskubide hori betetzeko, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri ahal izango da", zehaztu dadila, halaber, ordezko prestazio-sistema hori soilik behin-behinekoa izan behar dela, helburua etxebizitza bat eskaintzea izan behar baita.

26. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, 11. orrialdeko 1.2.1.3.3 azpiekintzan ("Kolektibo berrientzako etxebizitzarako eskubide subjektiboa (EES) garatzea"), esaten denean "Estatuko Etxebizitza Legean edukitzaile handiei aplikatutako neurriak aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea planteatzen da", ordeztu dadila honako esaldi honekin: "Alokairu pribatuaren prezioak arautzeko, Estatuko etorkizuneko araudiak ahalbidetzen duenean, eta Eusko Legebiltzarrak horri buruz hartutako erabakiekin bat etorriz, alokairu pribatuaren prezioak kontrolatzeko sistema bat abian jartzea planteatzen da, euskal errealitatearen berezitasunetara egokitua", 2022ko aurrekontuetarako akordioari jarraikiz.

27. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala datozen 15 urteetarako etxebizitzaren aldeko gizarte-itun bat sinatzea, politika iraunkor eta partekatu baten garapenean aurrera egingo duena, epe luzera irauteko asmoarekin, etxebizitzaren arloan lan egiten duten eragile guztiak integratuz, indarrak eta borondateak batzeko, bi erronka nagusiri aurre egiteko

rehabilitación de vivienda se concederán atendiendo a criterios basados en la renta.

24. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a ampliar y a mejorar los debates de cara a la conformación del Pacto Social por la Vivienda, fomentando la participación efectiva de colectivos ciudadanos y del sector de la vivienda, así como informando y tratando de acordar con los grupos parlamentarios.

25. El Parlamento insta al Gobierno a que, al explicar el derecho subjetivo a la vivienda (6.ª página del "Diagnóstico normativo-programático" del Plan Director de Vivienda), cuando se dice que "Si se carece de vivienda o residencia, y de forma subsidiaria, se podrá establecer un sistema de prestaciones económicas para cubrir este derecho", se concrete, igualmente, que este sistema de prestaciones sustitutorias debe tener un carácter provisional, porque el objetivo debe ser ofrecer una vivienda.

26. El Parlamento insta al Gobierno a que, en la subacción 1.2.1.3.3 de la página 11 ("Desarrollo del Derecho Subjetivo a la Vivienda (DSV) para nuevos colectivos"), cuando dice "se plantea el estudio y, en su caso, implementación, teniendo en cuenta la situación de la oferta de viviendas en alquiler en Euskadi, de las medidas propuestas en la Ley estatal de Vivienda aplicadas a los grandes tenedores", se sustituya por la siguiente frase: "Cuando lo posibilite la futura normativa estatal, y de acuerdo con las decisiones adoptadas por el Parlamento Vasco, con el fin de regular los precios del alquiler privado, se plantea la puesta en marcha de un sistema de control de los precios del alquiler privado, adaptado a las especificidades de la realidad vasca", siguiendo el acuerdo presupuestario de 2022.

27. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar la firma de un pacto social de la vivienda para los próximos 15 años, que avance en el desarrollo de una política sostenible y compartida, con vocación de permanencia a largo plazo, integrando al conjunto de agentes y actores que trabajan en el ámbito de la vivienda, con el fin de sumar fuerzas y aunar voluntades para lograr

helburuarekin: arrazoizko prezioko alokairuko etxebizitzen parkea bikoiztea eta eraikin eta etxebizitza birgaituen kopuruan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia ematea.

28. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Zerga Koordinaziorako Organoaren esparruan, plantea dezala txosten bat egitea alokairu-prezioei eusteko balizko zerga-neurriei buruz (pizgarri eta zigor fiskalen bidez). Txosten horretan, gainera, egungo zerga-pizgarrien azterketa eta ebaluazioa jasoko da. Txosten horren emaitzak Zerga Koordinaziorako Organoari berari helaraziko zaizkio, kontuan har ditzan, eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

29. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala itun fiskal bat, etxebizitzaren arloko politika fiskala 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren helburuekin lerrokatu ahal izateko, arreta berezia jarriz foru-aldundien eskumeneko alokairurako eta birgaitzerako PFEZren pizgarri fiskaletan.

30. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, alokairu pribatuaren prezioak arautzeari buruzko etorkizuneko estatu-araudiak aukera ematen duenean, jar dezala abian alokairu pribatuaren prezioak kontrolatzeko sistema bat, Eusko Legebiltzarrak horri buruz hartutako erabakiekin bat etorriz eta euskal errealitatearen berezitasunetara egokituta.

31. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza ditzala hiri-berroneratze integraleko jarduketak Euskadiko lurralde osoan, ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, hiri- eta gobernantza-alderdiak jorratuz, zehazki, auzo zaurgarrietan epe luzera esku hartzeko programa baten esparruan.

32. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala neurriak udalei laguntzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko, etxebizitza hutsen inbentarioak abian jar ditzaten eta etxebizitza hutsak Bizigune programara mobilizatzeko programak gauzatu ditzaten.

abordar dos grandes retos: duplicar el parque de vivienda en alquiler a precio asequible y dar un gran salto cualitativo y cuantitativo en el número de edificios y viviendas rehabilitadas.

28. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a plantear, en el marco del Órgano de Coordinación Tributaria, la elaboración de un informe sobre posibles medidas fiscales para contener los precios de alquiler (vía incentivos y penalizaciones fiscales). Dicho informe incluirá, además, el análisis y la evaluación de los incentivos fiscales actuales. Los resultados de este informe se elevarán al propio Órgano de Coordinación Tributaria para su toma en consideración y se remitirán al Parlamento Vasco para su conocimiento.

